



# Txostena eskuan eta ibili munduan

EAEko ordezeko irakasleak  
2026ko urtarrila

Ordezkoen araudi berria  
argitaratzear dagoenez,  
txosten honek moldaketak  
jasan ditzake.

Beraz, txostena berritzen  
joango gara.

\*Duten zatiak alda daitezke.



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)



# Txostena eskuan eta ibili munduan

EAEko ordezeko irakasleak  
2026ko urtarrila

Sarrera. Egungo egoera .....	3
Ordezkoen araudian aldaketak .....	3
■ Ordezkoen araudia .....	4
Zerrenden osaketa eta kudeaketa .....	4
■ Sarbidea .....	4
■ Zerrenden arteko lehentasunak .....	4
■ Zerrenda orokorraren ordena .....	5
■ Birbaremazioa .....	6
■ Zerrendetako egoerak: Ordezkaguneko gidaren arabera .....	7
Ordezkoen hurrenkera nola ulertu (Ordezkagunean kontsultagai) .....	7
■ Uko egiteko arrazoiak .....	8
■ Zerrendetatik kanporatzea .....	9
Ikasturte hasierako esleipena -IKHA/COCU- .....	9
■ Datak (Epeak aldakorrak izan ahal dira) .....	9
■ Prozesuaren inguruko gorabeherak .....	9
■ Ohar garrantzitsuak .....	10
Ordezkagunea .....	10
■ Funtzionamendu orokorraren salbuespenak .....	11
Uda kobratzea .....	12
Langabezia + jardun murriztua etab. ....	12
Jardunaldi mota desberdinen ordu banaketa .....	13
Nominak: 2025-2026 .....	14
Informazio gehigarria .....	15

## Sarrera. Egungo egoera

Txosten honen helburu nagusia irakasle ordezkoari informazio praktikoa helaraztea da. Hemen jasota dauden hainbat eskubide langileon borrokari eta sindikatu batzuen presioari esker lortu dira.

Pasa den ikasturtean izandako borrokari esker 2025ko maiatzaren 9an Lan Akordio berri bat sinatzea lortu zen. Akordio arautzaile honen negoziaketa luzea izan da, 2020an hasi eta bost urte beranduago sinatu baita. Akordio hau mobilizazio dinamika luze bati esker lortu da, eta bereziki langileriak kaleetan erakutsitako indarrari esker.

## Ordezkoen araudian aldaketak

Ordezkoen araudi berria argitaratzeaz dagoela jakinarazi digu Hezkuntza Sailak, baina oraindik araudi zaharrean oinarritzen ari dira, eta aldi berean, alde bakarrez Ordezkoen Gidan argitaratutako aldaketa batzuk aplikatzen hasi dira. Beste behin ere, adostutako aldaketak berandu datoz, ordezkoen kalterako eta albokaltze Hezkuntza Publikoaren kalitaterako.

Horrez gain ikasturte hasiera ez-ohiko informazio berriarekin hasi dugu:

- Ikasturte hau ere ohikoak bihurtzen ari diren gora-behera batzuekin hasi dugu: tutoreak izango diren ordezko batzuk ikasleekin batera eskolara heldu dira, udako esleipenen daten atzerapena eta esleitutako lanpostuek ondo perfiatuta ez egotea. Adinagatiko murrizketak ere berandu heldu dira ikastetxeetara.
- Tramitagunea eta Komunikabidea Hezkuntza Saila bunkerizatzeko tresnak baino ez dira izan. Langileak ez dituzte erantzunak jasotzen eta horrek haien eskubideak urratzen ditu maiz, izan lizentzia eta baimenak gozatzeko edo informazio xumea jasotzeko.
- Lizentzia eta baimen gehienek parekotasuna karrerako funtzionarioekin.
- Urte sabatiko hartzeko aukera.
- 55 urtetik gorakoentzat lana bermatzeko plana.
- Irailaren 1ean bajaran dagoenari edo beste arazo justifikatu batzuegatik jabetza egin ezin dutenei, lanpostua azaroaren 30ra arte gordeko zaie.
- Titularrak aldi baterako ezintasun egoeran jarraitzen duen bitartean ordezkoari ez zaio kontratua etengo.
- Irailan zehar ikasturte osorako hartzen diren kontratu guztiek bakante izaera izango dute. Jubilazio kasuetan edozein unetan.

Hezkuntza Sailak, berriro ere ordezkoen eskubideak urratzen jarraitzen du!

**Langileon eskubideetan aurrera egitea lortu behar dugu!**



## ■ Ordezkoen araudia

### Ordezkoen araudia

(2023-11-18ra arte)

Ordezkoen araudi berria publikatzean  
QR-a eguneratuko dugu.



### Titulazioen eta espezialitateen taula



### Arauk



## Zerrenden osaketa eta kudeaketa

### Zerrenda guztiak irekita!



### Zerrendetan on-line izena emateko gida



### Ohar garrantzitsuak



### Ordezlaguneko gida



## ■ Sarbidea

1. Zerrenda guztiak irekita daude. Izena emateko Hezigunearen bidez beharrezko tituluak aurkeztu behar dira.
2. Dagoeneko zerrenda batean egonda, beste zerrenda batean sartzeko, birbaremazio prozesuan dagoen titulazioa aurkeztu beharko da.
3. Oposizio probak gaindituta baina plazarik gabe, zerrendetan 6 puntu gehigarriekin sartzea lortuko da.

## ■ Zerrenden arteko lehentasunak

1. Espezialitateko **zerrenda orokorra**, birbaremazio-prozesuaren ondoren puntuazioaren arabera ordenatuta (A).
2. Espezialitateko **oposizio probak gainditu** dituzten pertsonekin osatutakoa, lortutako emaitzaren arabera ordenatuta (B).
3. **Aparteko irekieren zerrenda orokorra**, abizen eta izenaren arabera alfabetikoki ordenatuta (A1, A2...).

- 4 Txostena eskuan eta ibili munduan



4. **Une oro irekita dauden zerrendetan aurkeztutako eskaerak**, eskaeraren data eta orduaren arabera ordenatuta (A4, A5...).
5. **Birbaremazioko zerrenda bereiztua**, hizkuntza eskakizunik ez duten hautagaiak osatua, puntuazioaren arabera ordenatuta (C).
6. Ez-ohiko irakasle zerrendak, Heziketa pedagogiko eta Didaktikoko masterra ez duten hautagaiak osatutako zerrenda bereziak (D eta E).

**Oharrak:** Bigarren, hirugarren eta laugarren puntuetakoak birbaremazio prozesuan zerrenda orokorrean sartuko lirateke. Adi egon beharra dago ziurtatzeko hori gauzatzen dela.

Bosgarren eta seigarren puntukoek ezin izango dituzte aukerak aldatu (lurralde historikoa eta jardun mota birbaremazio prozezu bateak sartu arte).

## ■ Zerrenda orokorraren ordena

Espezialitate bakoitzeko zerrenda orokorra puntuen arabera ordenatzen da. Irizpide garrantzitsuenak (gehiago Ordezkoen Araudiko eranskinetan):

		Puntuazioa
Esperientzia irakaskuntza arautuan	Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 60 egun = puntu 1</li> <li>• Espetxeetan, 60 egun = 2 puntu</li> </ul>
	Pribatuan eta Haurreskolak Partzuergoan	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 60 egun = 0,33 puntu</li> </ul>
	Haur-eskola pribatuetan	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 60 egun = 0,11 puntu</li> </ul>
Prestakuntza akademikoa	Eskakizunezko titulazioaren espediente akademikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 9tik 10era, puntu 1</li> <li>• 7tik 8,999ra, 0,75 puntu</li> <li>• 6tik 6,999ra, 0,50 puntu</li> <li>• 5etik 5,999ra, 0,25 puntu</li> </ul>
	Bestelako gradu edo lizentziaturak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Puntu 1</li> </ul>
	Diplomaturak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 0,5 puntu</li> </ul>
	Master Titulu Ofiziala (urriaren 29ko 1393/2007 EDk arautua)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 0,5 puntu</li> </ul>
	Doktore-titulua	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Puntu 1</li> </ul>
Hautaketa-prozesuak gainditzea	Oposizio fasea 2019tik aurrera gainditu izana	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 6 puntu (EPE bakar bat izango dute kontutan)</li> </ul>
Lanbide Heziketako sektore bereziak	Arloan izandako lan esperientziaren hilabete bakoitzeko	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 0,25 puntu (hilabete bakoitza) (gehienez, 15 puntu)</li> </ul>
Musikako irakaskuntzak, Arte dramatikoa eta Dantza irakaskuntzak	Arloan izandako esperientzia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• *Begiratu ordezkoen araudiko 1. eranskinaren C, D eta E atalak</li> </ul>



## ■ Birbaremazioa

- Ordezko gaien **zerrenda eguneratzeko prozesua** da eta azaroan egiten da, baina data horrek aldaketak izan ditzake.
- Epe horretan **Hezigunearen** bidez hautagaiaren fitxa kontsultatu eta datuak zuzenak diren egiaztatu daiteke, aurreko taulako baremoak barne.
- Prozesu honetan, **lan-aukerak alda daitezke; lurraldea, jardunaldi mota, espezialitateak gehitu edo kendu, etab.**
- **ADI!** Behin-behineko zerrendak argitaratzean **erreklamazioak** egin daitezke, eta behin betiko zerrenda argitaratzean **gora jotzeko errekurtsioa** egin daiteke.
- Birbaremazioetan egindako aldaketak hurrengo ikasturtean izango dute eragina. Birbaremazioa egin ahal izateko, abuztuaren 31a baino lehen zerrendetan izena eman behar da. Data horretatik aurrera hurrengo ikasturteko birbaremaziora itxaron beharko dute.
- Abuztuaren 31a arte lortutako meritua sartu ahalko dira.
- **Ez ahaztu "Izangaiaren fitxa" deskargatzea eta gordetzea**, prozesuak irauten duen bitartean egongo baita bakarrik ikusgai.
- Norberaren egoeraren arabera, ondorioak hauek dira:

	Kotizatzen du?	Oporrak sortzen ditu?	Erretirorako kontatzen du?	Ordezko gunean parte har dezake?	Udako esleipenetan parte har dezake?	Birbaremazioan parte har dezake?	Puntuatzen du?
Baja arrunta	BAI (kontratupean)	BAI	BAI	EZ	BAI	BAI	BAI (kontratupean)
Lan istripua	BAI (kontratupean)	BAI	BAI	EZ	BAI	BAI	BAI (fiktizioki, kontratua bukatzean babestutako egoeran jarritz)
Greba eguna	EZ	BAI	EZ	BAI	X	X	BAI
Senitateak zaintzeko eszedentzia	BAI	EZ	BAI		BAI	BAI	BAI (fiktizioki)
8 asteko guraso baimena	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	BAI	BAI
Gurasotasuna	BAI	BAI (kontratupean)	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI (kontratupean)
Ordaindu gabeko baimena	BAI	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Babestutako egoera	EZ	EZ	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI (fiktizioki)

\* Kontuan izan, kasuistika desberdin asko daudenez, taula honek orokorra den informazioa ematen duela.



## ■ Zerrendetako egoerak: Ordeztaguneko gidaren arabera

1. **Lanean:** eskola publikoan lanean.
2. **Lanerako prest: ordezkapenak egiteko prest.**
3. **Ez lanerako prest:** borondatez ordezkapenak betetzeko prest ez dagoela adierazten da, justifikaziorik behar izan gabe.
4. **Babestutako egoera:** bere egoeratik (lan-istripua, gurasotasuna, etab.) ordezkapenak bete ezingo dituen, eta puntuatzeko eskubidea izango duena.
5. **Behin-behineko zigorra:** aldi jakin batean ordezkapenak bete ezin dituen izangai zigortua. Penalizazio-aldiaren amaiera dataren berri emango da.
6. **Behin betiko baja.**
  - Bajaren justifikazio egoera sortu eta 10 egun naturaleko epean egiaztatu beharko da.
  - Egoera amaitzean lanerako prest dagoela jakinarazi beharko du, 10 egun naturaleko epean (bestela, zerrendetatik kanporatua izan daiteke).

## Ordezkoen hurrenkera nola ulertu (Ordeztagunean kontsultagai)

### Hautatutako lurralde, lanaldi eta gainerako informazioaren inguruko xehetasunak

Ordeztagunean norberaren profilean "nire posizioa zerrendetan" sakatzean, hurrengo agertuko da:

#### Non egin nahi dituzu ordezkapenak?

Araba: bai (Lanaldia: osoa eta murriztua)

Gipuzkoa: bai (Lanaldia: osoa eta murriztua)

Bizkaia: ez (Lanaldia: zehaztu gabe)

#### Informazio egiaztatua\*

Hizkuntza-eskakizuna: 2. HE

Zeinu-mintzaira: 0 maila

Ingelesa: ez

Frantsesa: ez

#### Eskola emateari buruzko informazioa\*\*

Hizkuntza-eskakizuna: 2. HE (edo txikiagoa) Ingelesa: ez Frantsesa: ez

\* Tituluen bidez egiaztatu duzun informazioa da. \*\* Zerrendetan izena ematean egin duzun hautaketa da. Informazioa sortu den eguna eta ordua: 2022/09/29 – 08:04:23.



## Hurrenkeraren inguruko xehetasunak

Norbera dagoen ikasgaien zerrendan, "kontsultatu xehetasunak" atalean sakatuz gero, zerrenda horren hurrenkera ikus daiteke.

Maila-kodea	Ikasgaia	Ikasgai-kodea
20	Curriculum desberdinak eratzekoa. Hizkuntza-gizart.	0986

Araba • Ordena-zenbakia: 00929

Lanpostuaren lanaldi-mota	Plazaren hizkuntza-eskakizuna (HE)		
	PL 0	PL 1	PL 2
Osoa	57	57	57
Murritzua	37	37	36

Gipuzkoa • Ordena-zenbakia: 01108

Lanpostuaren lanaldi-mota	Plazaren hizkuntza-eskakizuna (HE)		
	PL 0	PL 1	PL 2
Osoa	75	73	72
Murritzua	53	52	50

### Nola irakurri?

- Tauletan jasotzen diren zenbakiak norbera baino lehenago ordezkapenak egiteko prest dauden hautagaien kopurua adierazten dute.
- Ordena-zenbakia: hautagaiak zerrenda horretan duen postua.
- PL (perfil lingüístico). - HE (hizkuntza-eskakizuna).

**Gogoratu:** parte-hartzea borondatezkoa da, baina nahitaez lanpostuak esleitu daitezke.

Lanpostu bat hutsik geratzen bada inork hautatu ez duelako, zerrendan "lanerako prest" dagoen azkenari derrigorrez esleituko zaio eta mezu edo e-mail bidez jakinaraziko zaio.

## ■ Uko egiteko arrazoiak

Eskaintza egiten den unean jakinarazi behar da, zerrendetatik ez kanporatzeko:

1. Aldi baterako bajaran egonda, 10 eguneko epean dagokion egiaztagiria aurkeztu behar da.
2. Plaza jakin gutxi batzuei (Berritzeguneak...) uko egin ahal zaie zerrenda espezifiko horretan ez badago. Bestalde, plaza horietara joan nahi izanez gero, uneko plazari uko egiteko aukera dago (34. eta 40. art.).
3. Lanbide Heziketako ezaugarri berezietako lanpostuetan, esleitu eta hurrengo 15 egun naturaletan postua betetzeko gai ez dela adierazten bada (zuzendaritzak edo langileak) (46.art., protokoloa).
4. Aniztasun funtzional fisikoa duen pertsona batek lanpostuaren zereginak bete ezin izatea.



## ■ Zerrendetatik kanporatzea

Kanporatzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

1. Ordezkoak berak eskatzea.
2. Karrerako funtzionario izendatzea. Horrek izendatua izan zaren kidego horretako espezialitate guztietatik kanporatzea dakar.
3. Derrigorrezko erretirorako adina izatea (70 urte).
4. Eskaintzari uko egitea onartutako arrazoirik eman gabe. Horrek espezialitate guztietatik eta lurralde historiko guztietatik desagertzea dakar.\*
5. Uko egiteko arrazoiak ez alegatzea edo ez egiaztatzea, aginduak ezartzen dituen epe eta baldintzetan.\*
6. Esleitutako lanpostura ez joatea.\*
7. Diziplina-espedientea jasotzea, hutsegite larri edo oso larri batengatik.
8. Eginkizun arruntak gauzatzeko gaitasun-falta nabaria izatea (45. art.).

\* Laugarren, bosgarren eta seigarren kasuetan, kanporatutako ikasturtean eta hurrengoan ezin izango da sartu berriro zerrendetan.

## Ikasturte hasierako esleipena -IKHA/COCU-



## ■ Datak (epeak aldakorrak izan daitezke)

Prozesua urtero irekiko da Langileria Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez, ekainaren bigarren hamabostaldia eta uztailako lehen hamabostaldiaren bitartean. Prozesua ekainean hasi eta uztailan zehar bukatzen da.

Hezkuntza Sailak prozesuaren informazioa web orrian argitaratuko du eta hauek dira bertan azaltzen direnak:

- Prozesuaren egutegia.
- Ebazpena.
- Kidego bakoitzeko prozedurak.

## ■ Prozesuaren inguruko gorabeherak

**Ikasturte hasierako esleipenean, lanpostuen aukeraketa edozein lurralde eta jardunean egin daiteke** (birbaremazioko baldintzek ez dute eraginik).

Esleipena puntuazioaren arabera egingo da.

**Borondatezko prozesua da** eta borondatezko atalean hautatutako lanpostuen artean soilik lehiatuko da. Lanpostu bat inork badu hautatzen, hutsik geratuko da eta ordezkagunean eskainiko da. Prozesu honetan ez dira derrigorrezko lanpostuak esleituko.



Irakaskuntza ertainetan, soilik 1. kideetasuneko lanpostuak har daitezke.

Ikasturteko lehenengo egunean jabetza fisikoa egin behar da. Justifikaziorik gabe jabetza egin ezean, urte osoko lanpostua galtzen da, zerrendetatik 2 ikasturtez kanporatua izanik. Zerrendetatik ez kanporatzeko, 10 lanegun egongo dira jabetza egin ez izana justifikatzeko. Honakoak dira justifikatu daitezkeen egoerak:

Salbuespenak:

- Gurasotasuna.
- Arriskuko haurdunaldia.
- Aldi baterako baja, lan istripuagatik edo lanbide gaixotasunagatik.

## ■ Ohar garrantzitsuak

Administrazioak Hezkuntzaren web orrian, IKHA/COCU-n (iragarki taulan) atalean argitaratuko ditu izendapenak.

## Ordezlagunea

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako lanpostu hutsak estaltzeko eskaerak telematikoki kudeatzea ahalbidetzen duen plataforma da. **Bi funtzio nagusi** ditu:

1. Oinarrizko datu pertsonalak berrikustea/eguneratzea/biltzea	2. Ikastetxe publikoetako lanpostu hutsak estaltzeko kudeaketa
<p><b>Harremanetan jartzeko datuak,</b> Hezkuntza Saila hautagaiekin telematikoki komunikatzeko (e-mailez edota telefonoz).</p> <p>Hautagaiaren ohiko helbidea, beharrezkoa denean, sistemak hautagaiaren ohiko helbidetik EAEko edozein ikastetxe publikora distantzia kilometrotan kalkulatu dezaten.</p>	<p>Ikastetxe publikoetako <b>lanpostu</b> hutsak <b>estaltzeko eskaintza eta</b> lanpostu horien ezaugarriak egunero kontsultatzeko aukera ematea.</p> <p>Hautagaiari eskaintzaren barruan estali nahi dituen <b>lanpostu hutsak eskatzeko</b> eta eskaerak <b>lehenesteko</b> aukera ematea.</p> <p>Hezkuntza Sailera lanpostu hutsen <b>eskaera bidaltzea.</b></p> <p>Sailak egunero egiten dituen esleipenetara sartzea eta <b>jakinarazpena</b> bitarteko hauen bidez <b>jasotzea:</b> e-maila, SMSa edota telefono deia.</p>

### Ohar garrantzitsuak:

1. Ordezlagunean lanpostu bat lortzeko aukera izateko, egunero parte hartu behar da, baina partehartzea borondatezkoa da ("lanerako prest" bazaude).

2. Ordezkapeneko ordutegia:
  - a. **Nire lan egoera aldatzeko: 9:30etik 13:00etara** bakarrik.
  - b. Lanpostu hutsak estaltzeko eguneroko eskaintza argitaratzeko eta eskaerak egiteko: **13:30etik 15:30era**.
  - c. Esleipena ikusteko: **15:45ean**, nahiz eta ordu hori alda daitekeen eskaintako plaza-bolumenaren arabera.
3. Lanpostu bat hutsik geratzen bada inork hautatu ez duelako, zerrendan "lanerako prest" dagoen azkenari esleituko zaio eta mezu edo e-mail bidez jakinaraziko zaio.
4. Irakaskuntza ertainetan, 2. kidesuneko lanpostuak ere har daitezke.
5. Ordezkapenetik lan egoera aldatzeko arazoak izanez gero, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi ahalik eta azkarren. Ordezkoa bere kabuz ez bada lanerako prest jartzen eta ez badu bere egoera justifikatzen, Ordezkaritzak 10 lanegunetan (gutxi gora behera) lanerako prest jarriko du.

## ■ Funtzionamendu orokorraren salbuespenak

1. Ordezkapena bukatu eta **10 irakastegun\* baino lehen** irakasle berbera ordezkatzeko beharra sortzen bada eta ikastetxeak horrela jakinarazten badio dagokion Lurralde Ordezkaritzari, ordezko berdinak egingo du ordezkapen hori, oraindik lanerako prest eta kontraturik gabe badago.
2. Pertsona bat lanaldi osoko ordezkapen bat egiten ari bada, eta postuaren **titularra lanaldi murriztuarekin itzultzen bada** lanera, ordezkapena egiten ari zen pertsonak jarraitu beharko du ordezkapena egiten lanaldi murriztuko aukera hautatu bazuen; bestela, berak erabakiko du lanaldi murriztuarekin jarraitu nahi duen edo ez.
3. Pertsona bat lanaldi murriztuko postu bat estaltzen ari bada, eta hori **lanaldi osoko postua bihurtzen bada** edozein arrazoi dela eta, lanaldi partzialean izendatuta zegoen pertsonak jarraituko du lanaldi osoko postuarekin, lanaldi osorako puntuazio hobea duten pertsonak badaude ere, lanaldi osoko aukera hautatu bazuen; bestela, berak erabakiko du postuarekin jarraitu edo ez.
4. Pertsona bat lanaldi murriztuko ordezkapena egiten ari bada, eta ikastetxe berean **lanaldi murriztuko beste ordezkapen bat egiteko premia** sortzen bada eta ikastetxeak dagokion Lurralde Ordezkaritzari horrela jakinarazten badio, hautagai horrek lehentasuna izango du ordezkapen hori egiteko, puntuazio handiagoa duten hautagaiak baldin badaude ere, zerrendan 1. kidesunarekin baldin badauka, eta ordutegi-bateragarritasuna badu.

### \*Oharrak:

**Irakasteguna:** astelehenetik ostiralerako eguna, irakasleontzat laneguna bada.

**Laneguna (egun balioduna):** egutegi orokorrean jai-egunak ez direnak.

**Egun naturala:** urteko egun guztiak.



## Uda kobratzea

1. Ikasturtean zehar 165 egun (hilabete = 30 egun) lan eginez gero, kontratu berria egingo dute uztailean eta abuztuan. Gizarte Segurantzaren altan egongo da:

Lan egindako egunak	Kobratzeko egunak	Lan egindako egunak	Kobratzeko egunak
5 arte	0	101 arte	8
17 arte	1	113 arte	9
29 arte	2	125 arte	10
41 arte	3	137 arte	11
53 arte	4	149 arte	12
65 arte	5	161 arte	13
77 arte	6	164 arte	14
89 arte	7	165etik gora	Uztaila/Abuztua

2. Ordezkaritzak hurrengo egoerak desberdintzen ditu:

- Ikasturtean zehar 165 egunak bete ez dituzten langileak:

Ikasturtean zehar ordezkapen bat baino gehiago egin duten langileek, kontratu bakoitzaren bukaeran, sortutako oporren likidazioa jasoko dute, eta Gizarte Segurantzaren alta emango diete, eta VND (vacaciones no disfrutadas) kontzeptua agertuko da (egoera honetan egonda, ezin dute langabezian izena eman, kotizatzen ari dira eta).

Ekainean azken kontratuaren likidazioa jasoko dute. Uztailean ere egin daiteke likidazioa.

- Ikasturtean zehar 165 egunak bete dituzten langileak eta ordezlagunean, lanean ez dauden aldietan, lanerako prest egon badira:

Uztailean eta abuztuan dagokion izendapena izango dute, eta soldata ikasturtean lan egindako lanaldiekiko proportzionala izango da.

- Ikasturte osoko lanpostu hutsa (bakantea) duten langileak:

Uztaila hilabete horretan indarrean duten izendapenaren arabera ordainduko zaie.

Abuztuan izendapena izango dute (abuztuaren 31ra arte) eta dagokien ordainsaria jasoko dute ikasturtean lan egindako aldiari eta egindako lanaldiaren arabera.

3. Kontratupean dauden bitartean 60 eguneko puntu 1 jasoko dute, nahiz eta gutxiago kobratu. Kotizazioa lanaldi motaren arabera izango da.

### Langabezia + jardun murriztua etab.

Lan kontratua amaitu edo jarduna murrizten bada (nuberaren borondatez izan gabe), langabezia prestazioa eska daiteke (egun ez dago oso argi SEPEk zein baldintza eskatzen dituen langabezi prestazioa onartzeko).

Prestazioa eskatzeko, egoera hori sortu eta 15 laneguneko epean SEPEn hitzordua hartu behar da.



## Jardunaldi mota desberdinen ordu banaketa

### Haur eta Lehen Hezkuntza

Lanaldi mota	Ordu kopurua guztira	Irakastordua (atsedenak barne)	Osagarriak	Gutxienez astero joan beharreko egunak
Osoa	30	22	8	5
Bost seiren	25	18	7	5
Bi heren	20	15	5	5
Erdia	15	11	4	4
Herena	10	7	3	3

### Bigarren Hezkuntza

Lanaldi mota	Ikastetxeari arreta zuzena **	Ikastetxean gutxienez egon beharreko orduak	Zuzeneko irakaskuntza-orduak *** (zaintzak kanpo)	Osagarriak ****	Gutxienez astero joan beharreko egunak
Osoa	30	23	17*	6	5
Bost seiren	25	19	14-15	4-5	5
Bi heren	20	15	11-12	3-4	4
Erdia	15	11	8-9	2-3	3
Herena	10	8	5-6	2-3	2

### Lanbide Heziketa

Lanaldi mota	Ikastetxeari arreta zuzena	Ikastetxean gutxienez egon beharreko orduak	Zuzeneko irakaskuntza-orduak (zaintzak kanpo)	Osagarriak	Gutxienez astero joan beharreko egunak
Osoa	30	23	17	6	5
Bost seiren	25	19	14	5	5
Bi heren	20	15	11	4	4
Erdia	15	11	8-9	2-3	3
Herena	10	8	5-6	2-3	2

Oharra: lanaldi mota guztietan berdin puntuatzen da.

- \* Esparruka, proiektua eta ikasgelan berrikuntza-proiektuetan lan egiten duten irakasleentzako irakaskuntza orduen murrizketak jasoko dira. Murrizketa horiek gutxienez irakastordu batekoak izango dira.
- \*\* 7 ordu hauek (30 izan arte) ez dira zertan presentzialak izan, salbu eta jarduera batek zenbait unetan hala eskatzen duenean: Ikastetxearen proiektuak, bilerak, formakuntzak, koordinazio-bilerak, mailako irakasle tutoreen eta ikastetxeko orientazio-taldearen arteko bilerak, klaustroa, batzorde pedagogikoa, eskola-kontseilua, ebaluazio-bilerak, jarduera osagarriak.
- \*\*\* Curriculumua zuzenean ematea, banakako edo taldeko tutoretzak, Hezkuntza Sailak onartutako hezkuntza-errefortzua edo berariazko programak edota neurriak.
- \*\*\*\* Osagarriak: zaintzak (2 ordu gehienez), 2 ordu astean familiei arreta emateko eta orientazio- edo tutoretza-lanak egiteko, astean ordubate, departamentuko bileretarako edo koordinazio pedagogikorako, ordu 1 astean etengabeko prestakuntzarako.



## Nominak: 2025-2026

Nominaren kontzeptuak lau multzotan sailka ditzakegu, hobeto ulertzeko:

- A.** Denok kobratzen ditugun kontzeptuen kodeak: 1000, 2004, 2103 eta 2108.
- B.** Antzintasun-kodeak: 1020, 1027, 2130, 2135 eta 2140.
- C.** Kargu-kodeak: 2145 (mota ezberdinak daude kode honekin).
- D.** Maisu-maistren gehigarrienak (DBH/EPA): 2640 eta 2146 kodeak.

### Sortzapenak

Nominari dagokiona (eurotan eta hilabetero)			
Kodeak eta kontzeptuak	Maisu-maistrak	LHko Sektore Bereziako irak.	BH/HEOko irak.
1000 Soldata	1199,52		1387,24
1020 Antzintasuna (hirurtekoak)	43,54		53,39
1027 Oinarrizko aldea (hirurtekoak)	9,20		10,48
2004 Lanpostu-mailako osagarria	701,21	880,08	
2103 Berariazko Osagarria	756,38	992,82	858,63
2108 CE Kapitalizazioa	316,75 (denok kobratzen dugu)		
2130 CE 1er grado esp. Ded.	96,81 (6 urteko zerbitzuak izanez gero)		
2135 CE 4º grado esp. Ded.	57,74 (24 urteko zerbitzuak izanez gero)		
2140 CE 5º grado esp. Ded.	47,86 (30 urteko zerbitzuak izanez gero)		
2145 CE Adic. Cargo-Tutorea	71,34		
2145 CE Adic. Cargo-Koord.	64,84		
2145 CE Adic. Cargo-Mintegib.	64,99	64,28	93,13
2145 CE Adic. C. Zuzendaritza	(Gela, ikasle edo irakasle kopuruaren arabera)		
2640 CD Adic. Maisu-Maistra DBH	178,87		
2146 CD Adic. Maisu-Maistra EPA	80,14		



## Azalpenak GSKo kotizazio-oinarrien atalean

Siglak: **LI** Lan-istripua      **LG** Lanbide-gaixotasuna  
**AT** Accidente laboral      **EP** Enfermedad profesional

### Atxikipenak (deskontatzen dutena)

**Denok:** 401 PFEZren gaineko atxikipena (IRPF): sortzapenen ehuneko bat da. Urtean behin, langileak urte horretarako ehunekoa igotzeko eska dezake.

**GSKoek:** 350 Trab. cont. comunes: erretirorako eta osasun-asistentziarako kotizazioak. Sarrera gordinen % 4,83.

370 Trab. desempleo (bitarteko funtzionarioek soilik): sarrera gordinen % 1,55.

380 Trab. formac. profesional: sarrera gordinen % 0,1.

**MUFACEkoek:** 9360 Eskubide pasiboak: erretirorako kotizazioa.

9350 MUFACE: osasun-asistentziarako eta prestazioetarako kotizazioa.

### Aparteko ordainsarrietan (ekainean eta abenduan)

- Oinarrizko aldea (1027) ez da kobratzen.
- Oinarrizko soldataren (1000) eta hirurtekoen (1020) % 61,7 (A1 taldekoek) eta % 72,9 (A2 taldekoek) jasotzen da.
- Beste kontzeptuak berdin kobratzen dira.

## Informazio gehigarria

Ikastetxeen funtzionamendua:  
**Ikasturte hasierako ebazpenak**



**Lizentziak eta baimenak**



**Lan akordio orokorra**





[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
[araba@steilas.eus](mailto:araba@steilas.eus)

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
[bizkaia@steilas.eus](mailto:bizkaia@steilas.eus)

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
[gipuzkoa@steilas.eus](mailto:gipuzkoa@steilas.eus)

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
[nafarroa@steilas.eus](mailto:nafarroa@steilas.eus)



**Txostena eskuan eta ibili munduan**  
EAEko ordezeko irakasleak  
2026ko urtarrila